

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

kale

Elgetako aldizkaria apirila 47zk.

Goibek

**Sekula
baino
jende
gutxiago
jaietan**



Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorriño (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egi-leak hala eskatuko balu, inisialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobran Goibekokale ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

e-mail

Gurekin internet bidez euki gura badozu hartu-
emona, kontuz!

Posta elektronikoko berria:
goibeko@topagunea.com

Gure berbetiak ez ete dau balio komunikatzeko?

Goibekokalen euskalkixa sartzen bagare ez da kapritxo bat. Gure biharrian benetan sinisten dogulako da. Beste batzuk ahoskuan be estandarra erabil-tzian aldekuak-edo dira. Konplejuak?

Jaixetan entzundako bi edo hiru adibide baiño ez adibidien urjolan ez ittetzeko: "Oso ondo egin duzue", "hurrengo aterako direnak...", "presaka etorriko ziren eta zinta galdu jakue"...

Ez hartu honek esaldixok euskera onan eredu, mesedez! Elgetan "ondo egin dozue" esanda alkar aitzen dogu. Bateronbat Elgetako taula gaiñian agertzen darian ez da ateratzen, urten baiño. Eta adibide larregi ez emotearren "prixaka etorritakuan": jakue, baiña "presaka etorriko ziren" eta gero: zitzaien.

Mesedez, euskaldun ona izateko zortzi abizenak euskaldunak izan eta Rh-izatia biharrezkua ez dan moduan, gure herrixan komunikatzeko estandarra erabiltzia be ez da euskaldun hobia izatian seiñale.

Euskera batua deitzen jakonan kontra egittera ez noia, izan be, idatzizko zeregiñetarako, euskalki ezbarðiñeko euskaldunekin komunikatzeko eta euskeria bera inddartzeko balio izan dau. Modernua da, ba, euskeria, eta prestigioik falta ez daben moduan, larregiko miresmena eukitzia be ez da ona, harik eta euskalkixen kalterako darian behintzat.

Taula baten gaiñian dagonak, Elgetan egitten diran billeretan parte hartzen dabenak, mikro bat eskuan dakanak, elkarte bateko jardunian diharduanak... eta orokorrian Elgetarron artian berbetan diharduanak (eta ez ari denak) gustora jardun bihar dau. Ez neban pentsauko Elgetan, %90a euskalduna dan herrixan lotsia euko daben jentia egongo zanik euskalkixa erabiltzeko, baiña nere ustien kontra, konplejuen aurrian burua makurtu dabenik badago. Askotxo gauza onerako. Hala eta be, iñoi eskolaik emotia ez neuke gura. Jardunian diharduanan alde egongo naiz beti, ixilik dagonak sekula ez dau ezer txarto ez ondo egingo eta. Dabillena badabill eta eskerrak horri.

Baiña, ETB-n be euskalkixak erabiltzen hasi dira eta guk gure herrixan ez ete gara komunikauko, dezakezue, ari izan, atera eta antzekoik barik?

Iban Arantzabal Arrieta

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 6



Zinegotzi berri baten iritzia

Ekainaren 13ak zeresan asko eman du, sorpresa asko izan ziren, batzuen zorionerako eta beste batzuen haserrera-ko. Gure inguruan, Debaguenean, zalantzarik gabe Lizarraren aldeko apostuak irabazi du, eta hori inportantea da, pakea eta normalizazioa lortzeko bidea batera egin behar dugulako; eta gurea bezelako eremuak behar beharrezkoak izango dira prozesua bultzatzeko eta gauzatze-ko. EAE eta Nafarroko beste hainbat tokitan, PP edo PSE-EEen jarrerak Lizarran hartutako bidea oztopatzea izango baitute helburu.

Euskal taldeen artean, HBk edo EHk pakearen alde egin duen apostua ausarta izan da eta baita arrakastatsua ere, eta euskaldun guztiok poztu behar dugu pakearen aldeko apostua baita; eta hori apostu nagusizat hartu behar da.

Hori dena garrantzitsua da. Gainera Elgetan ordezkariak lortu dituzten taldeak Lizarrako pelotoian gaude: dena dela, beste gai batzuetan bereiztuko gara, eguneroko lanean, herritarren arazoak konpontzeko moduan... Egia esan eta EHkoek propaganda dotorea egin dutela aitortuz. -koloretan, oso ondo aurkeztua etab-herri mailako konkrezio edo proiektu zehatzak bota ditut faltan, ideia orokorrak, ildo nagusiak bai, baina gauza konkreturik ez. Dena den ez dut iskanbilarik sortu nahi, EA-EAJkoek elkarlanerako gonbidapena luzatzeko asmoa dugu, komisi-ogarrantzitsuak eskainiz, eta hortik aurrera bakoitzak erakus dezala lanerako duen gaitasuna eta jorratu dezala Elgetarako duen programa. Elgetak guztion bultzada eta lana behar du.

Iñaki Ugarteburu



Elgetako EH-ren lan asmoak

Azkenengo hauteskundeetan EH-k izandako Aigoera pozgarria ikusita, handiena Iruñean, aurretik egindako lan sakon eta onaren fruitua izan delarik, ia guk ere hurrengo lau urtetan burutuko dugun lanarekin oraingoan baino emaitza hobea lortzen dugun, alkate-tza. Horregatik, ona hemen ondorengo lau urtetan lan egin ahal izateko oinarrizkoak iruditzen zaizkigun zenbait eskaera. Baina hori baino lehen, poztasun hori oso osoa ez dela izan esango nuke, abertzaleok, guztiok, gehiago igo behar genuen eta.

Kontuak kontu, ona hemen gure proposamenak:

Eratuko diren gure hiru batzordeek autonomia propioa izatea eta bakoitzari udal aurrekontuetatik, ahal den neurrian, antolatuko ditugun ekintzatarako beharrezkoa den diru zatia edukitzea.



Horrez gain, gure ustez, Elgeta bezalako herri batean gobernu batzordea ez da beharrezkoa, bertan oso jende gutxi parte hartzen baitu. Horren ordeztu beharrezkoa ikusten dugu erabakiak plenoetan hartzea. Horrela interesa duen guztiak parte har dezake eta.

Plenotaz gain, guk ez ditugun batzordeen jarraipena beharrezkoa dela ikusten dugu. Hortarako gure taldearen alde apostua egin duen edonork parte har dezake prest dagoen orok. Horrela, tratatu beharreko gai guztiak tratatuko ditugu, ageriko diren arazoei irenberidaren bat zenbait-heren emateko.

Oraingoz azkenengo asmo modura, gaur egun herri mailan dauden eta era daitezkeen (lan) talde ezberdinekin hartu-emanetan elkarlanean jardutea. Elkar-laneko lana beti ere sendoagoa da eta.

Besterik gabe:
Gora Euskal Herritarrok

Amaia Askasibar



Eusko Jauriaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldzikaria



Aldizkari honetako
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honen
argitaratzailea

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.
Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).
Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.
E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldzikarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Merezitako omenaldia eskeini zion herriak Aitorri

Eugiren aurka 22-11 galdu arren berrehun lagun baino gehiagok txapelduna balitza bezela jaso zuten herriko plazan.

Finala galdu arren Elkoro zaleek bazkaria izan zuten Txopekua jatetxean. Bazkaritik bueltan, 19:00ak aldera, Patxi tabernatik plazara bidea Elgetako eskolako trikitilariak lagunduta egin zuten. Plazan, berrehun lagun baino gehiago zeuden, herriko txapeldunaren zain. Udale- txeko balkoitik, "Elkoro zaleakeko" Fernando Oiangurenek eta Juan Mari Arantzetak, Aitorri eta herriari eskerrak eman zizkieten. Ondoren, Aitorrek, datorren urtean txapela ekartzen saiatuko

dela agindu zuen. Ea hurrengo urtean aurten baino zorte hobea duen gure txapeldunak.



Aitor Udaletxera sartu aurretik.

420 heldu kirolaz gozatzeko

Ekainak 11n helduentzako VIII. Kirol jaialdia izan zen Elgetan. Mankomunitateko kirol zerbitzuek antolatzen dute jai hau.



Edadetuek forman daudela erakutsi zuten.

Asko izan ziren gure herrira helduentzako VIII. kirol jaialdira etorri zirenak. Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Antzuola, Bergara eta Elgetako 420 pertsonak, era guztietako kirolak egiten pasa zuten arratsaldea.

Lehendabizi, ibilalditxoak egin zuten larrabilzear inguruan. Ondoren, egin zituzten kirolen artean aipagarrienak arku tiraketa, Floor ball, prezizio jokoak, esku pilota, badminton...izan ziren. Kirol guztietan aritutako guztiek euren trebeziak erakutsi zituzten.

Kirola egin ondoren merienda eta opari banaketa izan zuten. Ondoren, erromeria izan zen Elgetako trikitilari-kin.

Uztailak 24 eta 25ean
Santiagoak Azurtzan

Aurten ere Azurtzan Santiagoak ospatuko dira. Egitarau zabala prestatu dute.

Uztailak 24an 9:30etan berakatz zopa banatuko dute eta ondoren erromeria izango da Mallabiko soiñujoleekin.

Uztailak 25ean meza izango da goizeko 11:00etan. Meza ondoren Arabako Salbidea anaiek, Euskal Herriko txapeldunak trontzan, kirol erakustaldia egingo dute. Hauek, harrijasotzen, trontzan eta haizkoran arituko dira. Herri kirolak eta gero, Gorrotxategi eta Sorozabal bertsolariak egongo dira. Ondoren, musika Elortza anaiekin.

Arratsaldean, dantza suelta txapelketa izango da inguruko herrietako bikoteekin.

Egun guztian zehar bolatokia zabalik egongo da eta arratsaldeko 18:30etan txapelketa izango da. Txapelketako bost lehenengoarentzat sariak egongo dira, irabazleak 10.000 pta. eta garaikurra eramango ditu.

Jai hauen aurrekontua 520.000 pta dira, diru hau errifa eta borondatek ateratzen dute. Hauekin jaiak ordaintzeko heltzen ez bada auzokoen artean oradintzen dute geratzen dena.

GRUPO
IFA Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK

FS7 18

Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

EAJ/EAk alkatetza eta EHk igoera nabarmena

Patxi Basauri 28 urte alkatetzan jarraian betetzeko prest

50 botoko aldeaz EAJ/EAk atera duten taldeak irabazi zituen ekainak 23ko hauteskundeak. Hurrengo lau urteetan EAJ/EA taldeak 4 zinegotzi izango ditu eta EHk 3. Bi alderdiek herritarrak komisioetan parte hartzera gonbidatzen dituzte.

Ekainak 23an Europako legebiltzarrerako, batzar nagusietarako eta Udal hauteskundeak izan ziren. Elgetari dagokionez, EAJ/EAk 318 botu lortu zituen, EHk 266, PPk 16 eta PSE-EEk 6. Elgetan dauden 7 zinegotziak EAJ/EA eta EHren eskuetan geratuko dira. EAJ/EAk lau: Izaskun Larrea, Iñaki Ugarteburu, Maria Jesus Lete eta Patxi Basauri (alkatea) eta EH-k berriz 3: Olaiari Jimenez, Xabier Basauri eta Bittor Gallastegi.

1.995eko hauteskundeekin konparatuz, EAJ/EAk 20 botu jeitsi da, EH 75 botu igo da, PSE-EE botu bat jeitsi da eta PP bat ere ez izatetik 16 botu izatera pasa da.

Uztailak 3an kargua zin egin zuten zazpi zinegotziek. Patxi Basauri alkate kargua hartu zuen bere taldekoen aldeko botoekin.

Bi alderdi politikoek positibotzat baloratu dituzte hauteskundeak.

Eaj/Ea-rentzat alkatetza

EAJ/EAk positiboki baloratu ditu beraien emaitzak "gehiengo absolutua ateratzea lortu dugu 3. legislatura jarraian". Alkatearen esanetan "pertsonek seigarren aldiz jarraian alkatetza lortzea pozik egotekoa da". Hauteskundeetako emaitzak Euskal Herriko kontestu baten barruan baloratu dituzte "bost zinegotzi izatetik lau izatera pasatu gara, bozkatu dutenek lehengo baloratu dutena pakea izan da eta gero gestioa, hau ez dugu negatibotzat baloratzen, momentu honetan bake klima horrek urte askotan irautea nahi dugu eta. Lau urte barru kontestua "normalizatuagoa" egongo dela uste dute, "gestioa gehiago baloratuko da eta bototan mantendu edo igo egingo garela uste dugu". Hurrengo egunetan EHkoekin egotekoak dira batzordeak banatzeko "batzordeei ez dizkiogu trabak jarriko zer egin esanez. Hala ere, aurrekontuek jartzen diz-

kiote mugak, diruaren arabera gauza batzuk egin daitezke edo beste batzuk". Batzordetan parte hartzea bultzatu behar dela uste dute: "batzordeen funtzionamentuan zinegotzietz gain herriak parte hartu behar du".

EH-ren igoera nabarena

EHkoen esanetan "helburu nagusienetakoa hirugarren zinegotzia lortzea zen eta hori lortu dugu, espero baino boto gehiago lortu baititugu". Igotzearen arrazoiak "parte hartzea igotzea, Euskal Herri mailako giroa Elgetan islatzea eta EHk ekarri dituen gauza berriak" izan dira. Beraiek karguak hartu ondoren, hitzegin egin behar dela pentsatzen dute, bai beste

alderdiarekin eta baita herriko beste taldeekin ere. Beraien esanetan batzordeak autonomia gehiago izan behar dute, "gure nahia, batzordetan egon den limitazioarekin amaitzea da, nahiz eta lana egin azken hitza beti alkatearen esku egon baita orain arte. Guk hartzen ditugun batzordetan autonomia nahi dugu, herriko taldeak bertan parte hartzera animatuz, jendeak nahi duena entzunaz eta horiek aurrera eramanez". Batzordeei dagokienez batzorde garrantzitsuenetakoren bat beraien eskuetan geratzea espero dute "batzorde guztiak garrantzitsuak diren arren, batzorde garrantzitsuenetako bat gure eskuetan utziko dutela uste dugu".



Zinegotzietz eta alkateak kargua hartu zuten uztailaren 3an, jaietako zapatu goizean.

IÑAKI JATETXEA

Leku paregabea,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

San Kristobal Jaiak

Ez damutu inor San Ferminetara ez zaretelako joan, baina pekatu haundia da Errekaldeko San Kristobal jaiak etxe ondoan eduki eta bertara ez bazarete hurreratzen momentu baten ere. Hona hemen egitaraua haginak zorrozteko:

Uztailak 9 BARIKUA

- Gabeko 10,30etan pinu jasotzia San Kristobal ermita aurrean.
- Ondoren txokolatea banatuko da.

Uztailak 10 ZAPATUA

- 12etan: Meza
- Meza ostean kotxeen bedeinkazioa (ez ahaztu lorez dotoretzea)
- Gabeko 11etan: IMANOL eta ZABALETAekin ERROMERIA

Uztailak 10, DOMEKIA

- Arratsaldeko 3,30etan: Tiro-Plato Txapelketa
- Gabeko 11etan: MUXU TRUK taldearekin DANTZALDIA

Uztailak 11, DOMEKIA

- 12etan: Meza
- Ondoren kotxe bedeinkazioa
- Eguerdi guztian Triki Trixa.

Alkate berria eta Angiozar bailarako batzar berria

Ekainaren 20an egin ziren hauteskunde ondoz sortutako Bailarako Batzar berriak joan den hilaren hogeitabian egin zuen lehen batzarra eta ofizialki izendatuak izan ziren batzarkide berriak. Alkatearako botoetan enpatea egonenez Benedikto Ugarte eta Mila Elortzaren artean, Batzarrak alkatearako zein proposatuko zuen era-

baki beharra zegoen eta, bata zein bestearen posibilitateak aztertu ondoren, Mila Elortza proposatzea erabaki zen datozen lau urtetako legealdirako alkate.

Milak emango dio, beraz, amaiera mende honi eta hasiera hurrengoari alkatetzan. Zorionak eta arina izan dagiola ardura!!!

Eskola Txikien eguna Albisturren

Albisturren izan zen aurtengo Eskola Txikien eguna eta azken urteetan bezala arrakasta osoz parte hartu zuten Angiozarko gaztetxoek egin zuten antzezlanarekin. Bertara joaterik ez zutenek izan Angiozarren bertan gozatzeko aukera izan zuten emanaldi zabala Kurtso Bukaerako Jaialdian.

Aipatzekoa da grabatu berria duten pelikularen aurkezpen mundiala egin zutela Jaialdian. Gazte, irakasle eta zenbait iextrañren artean grabatu duten telenobela Angiozarren girotua dago eta trama interesgarria du: istripu, mediku, larrialdi eta abrekin. Goenkalekoek badute nondik hartu aktore eta aktorea berriak, izan ere profesionalak lez lana egin zuten denek. Zorionak guztiei!!

Liburutegiak udako ordutegia

Datorren uztailaren zehar Angiozar bailarako Liburutegiak eta bertan burutzen diren ekintzak goizeko ordutegia izango dute, 10etatik eguerdiko 13etara zabalduko delarik.

Hilabete honetan txikientzat denbora libreko ekitaldiak ere antolatu dira goizez, eta lehen egun hauetan behintzat inoiz baino arrakasta haundiagoz. San Ferminetako entzierroa korrituz hasten dute eguna eta ondoren badute zertaz gozatu: eskulanak, irteerak, jolasak,...

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak


Etxaurreak

Komunak

Otzango Behokoa Baserria. Tel: 860156

Pista askotxo ziran ez asmatzeko. Kartia bialdu dozkuenak asko izan dira. Sekulako animali garaua zan lehiaketakua. Ostruka deitzen da eta Angiozar aldeko auzuna baten dago. Bi ostruka dare eta bata harrapau giñuan guk erretratuan. **Desiree Ots Romerok** be ikusitta daka itxuria, eta ikusitta eukitzi az gain karta bat idatzi dabelako berak eruango dittu kamisetak. Zorionak Desiree!!!

Jaixekiñ lotutako lehiaketia egittia pentsau dogu oingo zenbakirako. Zein da hau? Pistaik ez goiaz emotera. Bakarrik esan jaixetan etaratako erretratua dala Erreza dalakuan gare, eta zu? Badakizu zer dan? Jakin ezker bialdu kartatxo bat Goibekokalera eta bi kamisetan zozketan sartuko zara.



Jgorren Komikia

Goibekokale 47.zk

Zelan Elgetako jaixetan?




Kristina Solana (23 urte)
Amaia eta Kristina taldea

Beste behin be egonda gare Elgetan, baiña Gaztetxian eta gaiñera oso gustora. Gaur, berriz, kostau jako jendiai animatzia, baiña uste dou lortu douela. Berriz be pozik etorriko giñake Elgetara, deittu ezkeru behintzat.

Egixa esanda, Bergarakua izanda behin etorri naiz Elgetako jaixetara, baiña lanerako gaur egindako giruakin behintzat, gustora geratu gara. Elgeta moduko herri baten gustora egitten da lan.

Mikel Laskurain (34 urte)
Trapu Zaharrek



Elgetako gaztetxeko antolaketak harrittu nau, beste gaztetxe batzuekin konparatuta izugarritzko arduria dago gauzak ondo egitteko. Oin dala bi hillaбетetik kontzertuan eguna ipinitxa genkan eta dana bihar dan moduan egitten dabe. Gaiñera marxta politta egon da.



Ainhoa (32 urte)
Naiun taldea




Leire Jganzabal (22 urte)
La Parranda taldea

Hasieran oso jende gutxi zeuan, baiña denboria pasa ahala jentia gehitzen eta animatzen fan da. Elgeta herriko jaixetan beste behin be etorri nintzan eta oso jende jatorra dagola esan biharrekua da.


Elgetar moduan, Ferixia aurrera eruateko ahal dana egitten gabiz. Oin jentia gutxiau doia ferixatara eta horregaittik normala da guk batxe txikitxo bat eukitzia. Gaur gaiñera eurixa hasi da eta horrek ferixa denboria moztu egitten dau.

Gregorio Romaneli (64 urte)
Saltzailia



Oso giro ona dago hemen herrixan, jentia gustora sentitzen da kontzertutan eta horrek, zuri be, gustora sentitzeko motibuak emoten dotzuz. Gaztetxia oso politta da.

Alberto L. Marfin (31 urte)
Aihom Rhumba taldea



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Paxi Taberna

Jesús Mari Montiel

**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

Izaskun Larrea (34 urte)
(Zinegotzia EAJ/EA alderditik)

- Zelako esperientzia izan da pregoia botatzia?
Nerbixo pixkatekin, baiña ona.

- Jaixak zelan hasteko asmua dakazu? Eta amaitzeko?
Hasi, lasai-lasai eta amaittu okertsuau.

- Bakaillaua ala trikiti-
xa? Bakaillaua.

- Jaixetako egunik gustokuena?
Zapatua.

- Gaba ala eguna nahixau? Gaba.

- Elgetako jaixei ze falta jakue?
Jende gehixau plazan.

- Herriko tabernaik martxosuena?
Musika patxangerua dagona.

- Zapatak ala zapatillak?
Jaixetarako, zapatillak.

- Dantzan soltian ala bikotiakin?
Bikotiakin.

- Zezenak ala pottokak nahixau?
Zezenak.

- Berrero pregoia botatzia gustauko jatzun?
Ez loztake inportako.



Xabier Basauri (54 urte)
(Zinegotzia EH alderditik)

- Ze inpresiño egin dotzu hainbeste jenden aurrian berba egittiak?

Jendian aurrian berba egindda daukat, baiña beti faten naiz urduri.

- Jaixak motzak egitten jatzuz? Ez.

- Agarraua ala sueltua? Ez bata ez bestia, bata gutxi dakitt eta bestia ez giñuan ikasi.

- Zezen aurrian ifintzeko asmoik? Ez. Ni barrera atzetik.

- Zenbat gaupasa egitteko asmua dakazu? Batenbat, asko ez.

- Jaixak, andriakin ala barik? Batzutan andriakin, beste batzutan andra barik...

- Abuztuan zer egitteko asmua dakazu?
Hemendik ibilliko naiz.

- Nun nahixau ittotzia Aixolan ala Asentzion?
Nahixau, Aixolan.

- Hurrengo urtian pregoia botatzeko asmoik? Ez, behin nahikua da.

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

**Iragarri
zaitez.**

Tel:78.90.85
Faxa: 789043

VIVO
Janari
denda

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

Milaurteko azken jaiak



Eguena. Egurdiko ordubiak. Etxafliroak eta kanpaihotsa herrian. Jaiak hasi dira. Arratsaldean haurrentzako jolasak buru handi eta haur parkearekin. Zazpiretan lehenengo mozerroak ikusi ahal izan ziren poteoan hasteko prest. Afalorduan herriko taberna guztiak goraino lantegietako jendez beteta. Kristina eta Amaiarengandik lehenengo soinu hotsak entzun odoren,

jaien hasiera ofiziala Kaskajoen pregoiarekin. Aurten hurrengo lau urteetan Udaletxean gure ordezkari izango diren Xabier Basauri eta Izaskun Larrea bertotan. Plazagizonak ez direla argi utzi zuten. Zezen suzkoaren ostean, Rock kontzertua Gaztetxean Berri Txarrak eta Zea Mayseneskutik eta Kristina eta Amaia plazan. Festa hasi da.

Barikua. Gazteak etxera erretiratzeko doazen heinean helduak erreleboa hartu. Mezatara joan ondoren, Incansables Txarangaren emanaldian gosea egin eta Ozkarbira bazkaltzera. Arratsaldearekin batera marrazki lehiaketa haurrentzat. Jaietako programan zerbait txalotu behar bada haurrei eskeini zaien arreta. Ongi. Bostetan trapu Zaharrak antzerki taldeak egindako "Aberria" antzezlan. Interesgarria benetan. Sei t'erdietan Elgetako jaiak ulertzeko ezinbestekoa dena: zezena. Oraindik mozerroak kalean. Jaiak dira, ze demontre! Bolo txapelketan Elgoibarko alguazila txapeldun. Jai hauek denetarik dute! Gauean badakizue. Gaztetxean jende dexente Naun eta Lif taldeak ikusten. Plazan berriz, Kiñuren erromerian jende gutxi eta dantzan gutxiago. Zegatik? Elgetan ez al gara erromeri zaleak? Bai ezta! Zerbait gertatzen da.







Txomin de Vega protagonista zela hasi zitzaigun **zapataua**. Intxortara igoeran bera izan zen onena Jon Irabalen aurretik. Kirolarekin jarraituz, Saralegiren erakustaldia ere ikusi ahal izan genuen. Fardoak horrelako altu bota zitezkenik inork gutxik uste zuen. Arratsaldean gaztetxoentzako Play Back-a. Bikain bat denentzako. Ume eta gurasoen txirrindulari txapelketa ikusi ondoren zezenaren txanda. Beste urte batzuetan baino giro eskasagoa. Gauean "La Parranda" taldearekin erromeria.

Oraingoa bai. Jendea animatu da. Bazen garaia! Gaztetxean kontzertua Athom Rhumba eta The Meows taldeekin. Romanelitarren furgoia heldu arte parranda.

Domeka. Azokaren txanda. Elgetako dantzariekin eta 4 t'erdiko finalek jaien amaiera datorrela jakinarazten digute. Jainaga eta Narvaizak, sardinen banaketarekin batera ematen diote amaiera jaiari. Jaiak amaitu dira eta balantzea egiteko garaia da. Batzuk hartutako mozkorrak komentatuko dituzte- oroitzen badira

behinik-behin-, beste batzuk beraien ligeak -hauek ere ez baitira falta izan-, beste batzuk jende gutxi etorri dela... Iritziak iritzi jaiak interesgarriak izan al dira? Programa osoa izan al da? Nola erakar daiteke jendea? Diru gutxi dagoela esatea ez da nahikoa. Datorren urterako badago zeregina.



Aita Santuari gutuna

Kaixo Jaun Agurgarri
Gorena:

Gu DBH 3. Mailako ikasleak gara eta Elgetan bizi garen harren Bergarara joaten gara ikas-tera.

Guretzat luxu handia da zuri eskutitz bat idazteko aukera izatea. Erantzungo diguzula uste dugunez, hona hemen guk idatzi nahi dizuguna:

Gutako askok galdera bat dugu gure buruotan eta erantzuna izango dugulakoan, hor doa: zergatik apaiz, gotzai,... ezin dira ezkondu? Zergatik ez daukate libre nahi izanez gero familia bat osatzea?

Guk ez dakigu zer sentituko den egoera horretan egonez gero, hau da, jainkoa maitatzeaz aparte beste pertsona batez maitemintzean, baina egoera hori bizitzea tokatu zitzaion Don Inaxioren istorioa kontatuko dizugu. Don InaxioEuskal Herriko herri txiki batean bizi zen, Nafarroa aldean. Berak 31 urte zituela (10 urte zermatzan apaizgintzan) herrira neskatxa berri bat joanzen bizitzera, bere familiarekin. Neskak Miren zuen izena, baina guztiek Mirentxu esaten zioten. Neskak 26 urte zituen eta oso alai eta bihotz zabala zen. Egun batean Don Inaxio eta Mirentxu kalean aurkitu eta hizketan hasi ziren. Egun hartan ohartu ziren elkar izugarri maite zutela, baina sotanak ere hor zeudela kon-



Gotzinak nahi izango balu ezkondu ahal izango luke? Guk ez daukagu erantzuna.

tuan hartu zuten.

Herrian azkar zabaldu zen xurrumurrua eta laister abixatu zuen gotzaiak aste bete barru herrian izango zela. Don Inaxioezkati zegoen, pekatu egin zuela esaten baitzuten denek, baina berak bazekien Miren biziki maite zuela eta ez zuen ulertzen zergatik bi gauzak ezin diren egin. Miren berriz oso triste zebilen aspaldian, uste baitzuen bere maitaren bizia zeharo izurratu zuela. Biek zekiten elkar maite zutela, baina maitasun hura ezinezkoa zela ere agerikoa zen. Gotzai herrira heldu baino ordu batzuk lehenago Mirentxu eta Don Inaxiok beraien buruaz beste egin zuten, honako gutun hau utziz:

Ez du inork gure maitasuna onartzen,
pekatari garela esaten duzue,
baina guk dugu elkar maitatzen
eta ezin garenez bizi elkarrekin
hemen,
hori onartzen duten lekura gara abiatzen.
Kristautasuna hain ona bada,
Zergatik ez du gurea ulertzen?

Historio triste honekin agurtzen gara, zer pentsatu eman dizugun ustean.

D.B.H.3-ko ikasleak

Elgeta autoak

Zure autoaren mantenua
konponketak
oporretara joan aurreko azken begiratua

**EUROTALLER**

Ez izan dudarik, bisita gaitzazu eta gure prezioekin txundituta geratuko zara. Berraondokuan gaude, Elgetan bertan.
Tel.: 943 76.82.02 eta 943 76.82.98

Zapatilakin zapaldu bai, baina argi!

Gaur egun gizarte honek markatzen dituen modak direla eta, asko arduratu gaituen gai baten berri ematera gatoz. Gure ingurura begiratzen badugu, nahiz haur nahiz heldu, punta-puntako markako zapatila edo arropak erabiltzen direla ikusi dezakegu. Era honetako arropak erostera goazenean lehenengo burutazioa askoz erosoagoak direla, behin erostekotan ondo ordaindu eta denbora luzerako izaten direlako etab. izaten dira argudioak. Gai hau askoz ere korapilotsuagoa da, ordea, lehengaia sortzen den momentutik. Zarraparrak betetako orri honekin bizitzako ezkutuko injustizia batzuei ere egin nahi diegu lekua.

Hauek dira NIKE eta ADIDASen arauak:

Miseriazko soldatak, neurritz kanpoko ordutegiak, ekintzak salatzeko debekua, emakumearen bazterketa, sindikatuetan izen ematea galerazi...


Adibide batzuk ematearren, Nikek Bangladeshen duen enpresa azpikontrata bateko hileroko soldata minimoa

3.750pta. da, baina errealtatean langileak 2.700 pta. jasotzen dituzte. Legalki, asteko lanorduak 48 ordu normalak gehi 12 aparteko lanordu dira, baina ia gehienetan asteko lanorduak 80 izaten dira. Lantegi hauetako langileek ez dau-

kate kontrataturik, sindikatuak debekatuta daude, segurtasun neurririk ez da martxan jarri eta langileak askotan beraien nagusiengandik gehiegikeria fisikoak jasaten dituzte.

Adidasek, bestalde, El Salvadorren daukan lantegi batean, langileak laneguneko bi bider bakarrik joan daitezke komunera, denbora neurtuta gainera. Hiru minutu baino gehiagoz kanpora atez gero, sol-

d a t a k o
d i r u a



murrizten zaie, 650 pta. gutxi- gora behera.

Hemen, emakumeei haurdunaldi frogak egiten zaizkie, kalera botatzen dituzte haurdun daudenak edo egoera horretan gehiegizkoak diren lanak

egitera bultzatzen dituzte. Lana ematerako orduan sindikaturen batekoa izatea galerazita dago.

Nike eta Adidasek ez dute esandakoa betetzen :

Multinazional hauek, mundu mailan duten indarra ikusita, gutxienez langileak errespetatu beharko lituzkete, lan baldintza duinak martxan ipini beharko lituzkete... baina zoritxarrez ez da horrela gertatzen. Beraien zapatilak fabrikazio akats handia dute oraindik.


Gaur egun, mundu mailako marka hauek futbol eta saskibaloizarrak kontratu izugarriekin babesten dituzte, zuzendariak milioi askotako diru ordainekin zaintzen dituzte... eta bien bitartean beraien zapatilak eskuz egiten dituztenak Hirugarren Munduko pertsonak dira, Ekialdeko lurraldeetako pertsonak dira...oinarritzko giza eskubideak zapalduta dituzten pertsona duinak.

Gu bitartean, multinazional hauen iruzurraren partaide gara.

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel.768078



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Txapela eta Joixon Bertan onenak futbito txapelketan

Txapelak Durangoko Bar el Arco hartu zuen mendean eta Joixon Bertanek, berriz, Aldrebesak

Ez dira txapelketako talderik onenak izan, baina momentua heldu denean maila eman dute. Joixon Bertan urte osoan zehar Aldrebesen atzetik joan da sailkapenean, beti oso gertu, baina atzetik. Argi zegoen bi talde hauetatik bat izango zela aurtego txapelduna, beste taldeak, Gu Gaz Guk hasierahaietatik erakutsi zuelako oraindik ez dagoela hauen maila berean. Partida parekatu baten ostean garaipena Joixon bertanekoentzat izan zen 3 eta 1 Alaine, Maite eta

Olaia ren golei esker. Txapelketako golegile nagusiaren saria Alainerentzat izan da.

Nesken finalaren ostean mutilen txanda heldu zen. Finalerdietan Angiozar kanporatu ostean txapelakoak ziren favorito nagusiak. Horrela izan zen. hasierahasiertatik Durangoko Bar El Arcokoak baino hobeak zirela erakutsi zitun. Atsedenaldirako 3 eta 0 ziren markagailuan. Bigarren zatien ildo bereetik jarraitu zuten gauzak,



Txapela bigarren aldiz garaile

nahiz eta Durangoaldekoak gol bat sartzeko kapaz izan ziren. Azken emaitza 5 eta 1ekoa izan zen. Mutiletan Haritz

Gallastegi izan da golegilerik onena. Zazpigarren saria du aurtengoa.

Euskadiko mendi kriteriumera txirrindulari onenak etorriko dira

Aurtengoa 15. edizioa izango da. azken urteetako ibilbide bera izango du.

Euskadiko XV. Mendiko txirrindulari lasterketak, azken urteetan ez bezala, afizionatu mailako onentsuenak bilduko ditu, bai Euskal Herri mailakoak eta baita estatu mailakoak ere. Aurten, egun aldaketa dela eta Mendi kriteriumak ez du ez Bizkaiko Birarekin ez eta beste lasterketa garrantzitsuekin kointzidituko. Ondorioz, Banestoko, Olarrako, Baqueko... txirrindulari hoberenak ikusteko aukera izango dugu.

Lasterketa hila-

ren 18an izango da, igandean eta goizez -goizeko 10etan hasi eta gutxi gora-behera 13etan amaitzeko-. Ibilbidea azken urteetako berbera izango da, beraz, seguruenik azken igoeran, Bergaratik Elgetara bitarteanerabakiko da.

Sariei dagokionez, lehenak 40.000 pezeta eta garaikurra izango ditu, bigarren sailkatzen denak 30.000 pezeta eta garaikurra eta hirugarrenak 25.000 pezeta. Horretaz gain beste zenbait sari

ere izango dira.

Emakumeen Bira Elgetan

Txirrindularitzak izan du bere protagonismoa azken hilabeteetan Elgetan. Emakumeen Birako bigarren etapako bigarren sektorea Elgetan amaitu zen. Birako etapa nagusia izan zen eta garaipena justu-justuizan bazen era Joane Somarribarenetzat izan zen. Momentu honetan Joane Somarriba Italiako Giroa korritzen ari

da de sailkapeneko lehenena da. Etapan bigarren eta Birako txapeldun Hanka Kpferñagel izan zen, gaur eguneko munduko txirrindularirik onena.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

HAIZEA

TABERNA

giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256

9
L
E
A
P
A
7
N
D
E
G
7
A

M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67

Leiza eta Mendizabal 4 t'erdiko txapeldun

Lemoarrak Muruamendiaraz garaitu zuen eta zaldibiarrek bere lagun Gurrutxaga

Jaiei amaiera bikaina emateko modu ezinobea izan ziren 4 t'erdiko finalak. Izugarrizko giroa frontoian, azken urteetan izan den jendetzarik ugariena, gazte ugari eta alaitasuna nagusi bonboa ere falta ez zela ia 800 lagun.

Kadete mailako finalean bi zaldibitar izan ziren aurrez-aurre. Aratz Mendizabalek eta Ibon Gurrutxagak, lagun onak izateaz gain, bikotea osatzen dute eta hori nabari izan zen kantxan. Hamasei urte besterik ez dituzten gazte bi hauek honelako txapelketak sortarazten duen presioaga-

tik edota hainbeste jenderen aurrean jokatzera ohituak ez daudelako edo, ez zuten beren mailarik onena erakutsi, txapelketa osoan eman dutena alegia. Txapela Aratz Mendizabalek bereganatu zuen 18 eta 13 irabazi ostean.

Leizaren erakustaldia

Gazteen finalaren ostean nagusien txanda etorri zen. Aurrez-aurre Iker Muruamendiaraz eta Iñigo Leiza. Lehena gaur egun afizionatu mailan dagoen pilotaririk onenatarikoa, aurreko urteko

txapelduna eta faboritua. Leiza berriz, hilaren 7an 19 urte bete dituen pilotari gaztea, ausarta, ezker esku bikainekoa eta galtzeko ezer ez zuena. Aldez aurretik denetarik izan zuen finala. Partida bikaina izan zen, Lemoarra erasoan 4 t'erdiko marraren bila eta bergararrak ohikoa duen bezala defentsa bikaina erakutsiz. Partida erdialderarte oso orekatua izan zen launa, bosna, sein, zazpina eta hamarnako berdinak egonez. Momentu horretan "Muru"k behe-rakada fisikoa izan zuen

eta lemoarrak ederki aprobetxatu zuen markagailuan aurrea hartzeko. Partida amaieran, nahiz eta "Muru"k ahalegin guztiak egin, garaipena Leizarentzat izan zen 22 eta 17.

Ubera anaiak Aramaixon


Aitor eta Xabier Ubera elkarren aurka izango dira larunbatean Aramaixoko txapelketako finalean. Aitorrek Unai Iñurra-tegi izango du bikote bezala eta Xabierrek berriz Jaio bizkaitarra.

Iñigo Leiza: "Bizkaitar batentzako oso zaila da profesioaletara igotzea"

19 urte bete berri dituen lemoar honek bere bizitzako garaipenik garrantzitsuena lortu du. Pozik zegoen egindako txapelketarekin. Orain hobetzen jarraitzea du helburu. Egunen baten, hain zaila ikusten duen profesioaletara pausoa ematea nahi du. Dena den, hankak lurrean ditu oraindik eta hasteko lau t'erdiko txapela familia eta lagunei eskeini die.

-Zorionak, Iñigo. Zure lehen txapela Elgetako txapelketan. Pozik egongo zara.

Mila esker. Urte osoa txapelak lortzeko lanean aritzen gara eta lortu ostean oso pozik aurkitzen gara. Gainera niretako banakako txapelketak binakakoak baino garrantzitsuagoak dira eta horregatik da oso garrantzitsua txapelketa honetan garaipena lortzea.



-Partida gogorra jokatu duzue. Non egon da partidako gakoa?

Nere ustez partida erditik aurrera apurtu da. Muruamendiaraz kantsatu egin da eta nik jo eta jo egin dut hori aprobetxatu nahian. Nire ustez hortxe egon da gakoa.

-Egindako partidarekin oso pozik

egongo zara.

Oso pozik nago. Uste baino hobeto jokatu dut.

-Seguruenik inoiz lortu duzun txapelketarik garrantzitsuena izango da hau. Ze helburu dituzu orain?

Dudarik gabe haxe izan da orain arte lortu dudana txapelketarik garrantzitsuena. Nire helburu nagusia orain hobetzen jarraitzea da, besterik ez.

-Eta profesionalak.

Oso gatxa da. Bizkaitar batentzat gainera zailagoa. Gaur egun profesioaletan ari diren pilotari denak edo gehientsuenak behintzat nafarrak, errioxarrak edota gipuzkoarrak dira.

-Bukatzeko, nori eskeintzen diozu txapela?

Nire familia eta lagunei. Etorri diren lagun guztiei.

Urteko egun luzieneko ohitturak galtzen dare

Ohitturak aldatzen doiazenik eziñ ukatu. Elgetan, ondiokan ohittura batzuk badake pisua galtziar daren arren. San Juan sua urtero ikusi dogu kalia, baiña hain kalekuak ez diran eta San Juan egunian egitten diran ira-iftintzia eta lora erramilletia elixara eruatia, galtziar daren ohitturak dira. Miren Egotxiakin, Miren Sesiakuakin eta Benedikta Sesiakuakin egin dogu berba ohitturen gainian.

Herriko sua

Eguaztenian izan zan San Juan bezperako sua. Gure herrixan umiak karriuan ibilli ziran pare bat astian zihar eta igarri zan. Kriston sua egin zebe polikiroldegi onduan. Haiñ haundixa izan zan sua, salto egittia gura eta txiki-xago bat egin bihar izan zebela onduan. Neska-mutiko batek baiño gehixauk erre zittuan uliak suak zekazen garrekiñ. Herriko suan jende mordu bat izan be, ume guztiak erretzekuok batzen ibilli eta gero guraso danak zeguazen suai begira. Ikusten zeguazanak ez ziran

larregi arrimau su ondora, eta balitteke suak emoten daben besteko berua ez emotia heurak umiei. Hala eta be, egon zan Elgetako trikitilarixekin dantzan egin zenbanik be. Sua goizalderarte egon zan piztuta.

Baserrixetako sua

Egueneko mezatan Jose Luis abadiak esan zeban moduan, "lurak inddarra hartzeko eta frutu hobiak emoteko pizten ziran suak baserrixetan". Benediktak beste entzute bat dakala esan dosku "kanpuan plaga asko egoten zan eta illuntzian basarri danetan sua egindda, tximeletak eta gainontzekuak erre egitten ziran argira fanda". Hau egiñ bittartian Miren Egotxiak eta Benediktak San Juanetako kantua gogoratu doskue:

San Juan San Juan berde garixak eta artuak gorde zapuak eta subiak erre biba San Juan berde!

Sorgiñekin be lotzen da sua egitteko ohitturia, eta hau hala izatera, zapuak eta subiak erre diñuan lekuan, lapu-

rrak eta sorgiñak erre be kantau izan da. "Suan onduan dantzan egitten zan eta gurasuak eta danak faten ziran su ondora. Eziñian zeguan bateronbat egon ezkerro be, silla bat ifiñi eta han batzen zan familixia. Aurtan, barandillaraño berua etorri arren, su onduan biharrian, urriñetik egon dira aitta-amak begira" Benedikatak esan doskunez. Anduriñ, Axulan, Ubera danian ixotu zittuen suak hamarrak inguruan eta Ikatzarren be ikusi giñuan sua.

Erramilletiakin mezetara



Eguenian, euzkixak egun luziena zekanian aurretik, goiz jaiki ziran batzuk. Guk mezarako bidian eta erromilletiak bedeinkau eta gero egon



San Juan Suan onduan giro berua. Trikitilarixek lagundu zebe berotzen.

IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

IBAIBARRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

ERHARATEGIA
AST

San Roke 6
tel: 768168.

giñan Miren Egotxiakin, Benedikta Sesiakuakin, eta Miren Sesiakuakin. Honetxek hirurok izan ziran illobak hartu eta ohitturia jarraitu nahixan mezetara fan ziranak. Miren Sesiakuak kontau dosku bere amak erakutxitza zer dakan erromilletian: "lilixuak, urrebotoiak, mentia, larrosak, frantzia krabeliñak, miarma bedarrak, San Juan lore txikixak, daliak, keixak, berakatza eta Elgetan, Salvador kalian, batutako garixa". "Zintta bedarra be ifintzen da" Benediktak esan doskunez. Halaxe daka, Ojangurenen batuta, Usuei ifiñi dotzan erramuan. Berakatza bekaldian ifintzen da eta behekaldia oiñ albalakin batuta badake be "zintta zurixakin batzen ziran lehen eta ezpatiakin gogor-gorgor



Elgetan hau ohitturiau galtzen dago. Usue, Usuri, Ainara eta Maialen izan dira ohitturiei jarraitu dotzenak bakotxan amaman esanetara.

egoten zan" Miren Egotxiak esan doskun moduan. Aittatu dosku "orduan soiñeko barrixak estreinätzen" zirala. Gaur zortzi ume egon dira mezetan, baiña ez da harritzekua, 30 urtetik beherako bederatzi neskatobaiño ez zeguazen eta.

Bedeinkatutako lorak atian ifintzen ziran elorrixakin egindako kuru-tzaixakin. Gaiñera, trumoia eta hasten ziranian, bedeinkatutako erramilleteko lorak piskanapiskan erre egitten ziran gauza txarrik ekarri ez daixen.

Aurreko urteko lorak gordeta dake ondionkan ganbaran. Bai Mirenen Egotxiak, bai Sesiakuak ointxe erreko zittuen iaztik gordetako lorok. Benediktak, berriz, esan dosku, asko ez dala erre zittuala egualdi txar bat zetorrela entzun zebanian.

Hiru amamak ilusiño haundixakin diharduela ikusi dogu eta ez da bela galduko ohitturia eurak bizi diran artian.

Irak ate aurrian

Lehenau, Benediktak eta Sesiako Mirenek akordau erain doskuen moduan, "goizian goiz jaiki eta irak eta lizar gorrixa ekartzen ziran". Bixak dare fanda intza edo illuntza zapalduaz ira batzera. "Oinutzik eta kamisoian, edo azpiko

gona hutsian fateko ohitturia zeguan" Benediktak esan doskun moduan. Lehen aittatu dogun erramilleteko sobran zeguazen lorak be ifintzen ziran iriak nahastuta atai aurrian.

Guk basarri baten bakarrik ikusi doguz aurten, Kantoikuan. Jose Mari Kantoikuak esan dosku, "goizian intza dagola iria ekarri eta ganauen hanke-tarako gaitzan kontra erabiltzen da. Lehenau arantzura zurixakin kurutzia egiñ eta atian josten zan, aurten ez dogu halakoik egin, baiña ez dira alferriko ohitturak", Etxia zaintzeko eta lurrei on egitteko egitten ei ziran.

Guk, ohitturei eusteko hurrengo urterarte intxoin biharko dogu, baiña ez goguan euki barik badagola zeregiña gaitzen kontra.



Ikatzarreko atarian be egoten ei da. Guk kantoikuan bakarrik ikusi giñuan

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



Pelikula baten inguruan

nahikua lan euki giñuala pelikulia aukeratzen, eta ez danak onak ziralako, ez. Batek ez zeukan itxura onegirik, baina, lehen esandakua, duan zan, eta sartu giñan "alguien como tu" izeneko bat ikustera.

Okurrittu bajakun okurrittu jakun San Juan bezperan Bitorixara fatia zinera. Esan egin biharko dogu duan zala asuntua, Euskadi Irratiak pagatzen zeban sarrerria, eta horrek be laguntzen dau.

Ba, asuntua da

Kartelei begiratu ta garbi ikusten zan neska-mutil gazte batzuen gauzak kontatzen zirala pelikulan, eta hala zan; baina zelan! Pelikulako gauzaik garrantzitsuen eskola bateko kurtso

Mozolatxo askotxondako garrantzitsuen erregiña izatia da; egun baterako besteik ez bada be. Eta mutillik ederrena harrapau ezkerro, gehixau zeregiñik ez dago. Ezkondu, umiak egiñ eta bizi.

amaierako dantzako erregiña aukeratzia zan!!

Eta hori gutxi balitza, horretarako ixa derrigorrezkoa zan eskolako mutil guapuenan laguna izatia; eta gaiñera, hori guapuoi, guapua ezeze, eskolako listuena be bazan. Kertenan tamaiñuan gaiñian edo jolasteko kapazidadian gaiñian ez zeben ezebe esan, baiña pentsatzekua da horretan be konpletua izango zala.

Eta hola fan zan pelikula osua, munduan beste zeregiñik ez balego moduan. Eta zinian gazetxo pillo bat eta gu, zahartxuauak. Eta eurak pozik, eta gu sutan. Zelan izan leike hain txarria! Pelikulia egin zebana. Eta zela izan leike hain iñuzentia! Beitu gustora zerenak. Honek ez dauka erremedioik. Zoritxa-

rez oindiokan be mozo-latxo askotxondako gauzaik garrantzitsuen erregiña izatia da; egun baterako besteik ez bada be. Eta hori lortziaz gain mutillik ederrena harrapau ezkerro, gehixau zeregiñik ez dago. Ezkondu, umiak egiñ eta bizi.

Zorionez, pelikulan hartutako disgustua kentzeko aukeria badakat hau idatzitta eta hoixe egingo dot. Hau irakurtzen dozuen gaztiok kontuan izan kertena euki edo ez euki, danok gazela bardiñak, eta bizitzan maitatua izatia inportantia bada, hori lortzeko bide bakarra ganorazkoa izatia dala, eta ez itxurak egittia, azkenerako itxura guztiak alperrikuak dira eta.

Jabier Arantzeta



Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

ZORIONAK

Eskerrikasko antolatzen
parte hartu duzuen guztioi.

Elgetako Udaletxeak
elgetar guztiak zoriondu nahi ditu.



**ELGETAKO
UDALETXEA**

EAJ/PNV - EA koalizioak
eskerrak eman nahi dizkizue
zuen konfidantzagatik

eusko
alkartasuna



Elgetaren alde lanean
jarraituko dugu

Denda berria



Gotzon Agirrezabal

Tel/Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA

astelehenetik zapatara:

10:00-13:00

eta 16:00-20:00.

T
textil
agirrezabal
A

**Alfonbren
almazen berria**

- Bertako eta inportazioko alfonbra eskusiboak
- "Generazio berriko" kolekzioa

Denda Berria

- Telak metroka eta pisura
- Etxerako behar duzun guztia: gortinak (guk geuk egindakoak), izarak, tapizak...

Den-dena almazeneko prezioetan



Amillaga industrialdea, 5 · BERGARA · Renault-en ondoan